

## Ilusio makinak

H

uraxe izan zen azken galdera: “Zoriontsu al zara?”. Igande arratsaldea zen, bazkal ostea, siesta garaia.

DANI BLANCO



Ana Urkiza

Padrón

Sarasola

Baina eskulanak egiten harra-patu gintuen. Inkesta egile gazte batek etxeko turrina jo eta EAEko bizi kalitate mailari buruzko inkesta bat burutzen ari zirela jakitera eman zigun. Ea bost minutuko galdetegi bati erantzun genion. Gazte-gaztea zen. Aurpegian idatzita zeraman egun guztian ez zuela hamar inkesta burutzerik lortu. Eta, astelehenean, nagusiak emaitzak eskatuko zizkiola. Larri zebilela, alegia.

Egongelara pasatu genuen eta galderei erantzuten hasi ginen. Denetik galdetu zigun: lana, oporrak, familia, politika, kultura... eta, azkenean, buruhaustea: “Zoriontsu al zara?”. Otik 10era bitarteko nota jartzeko. Eta nik, biribil-biribil, bederatzia eman nion.

Mutila agurtu genuenean, senarrak harrituta utzi nuela esan zidan: “Bederatzi bat? Segun eta kokteleran zer sartzen duzun!” esanez bukatu zuen handik pixka batera.

Eta ez, ez nago hain ados azken ttakun-kadarekin. Edo bai. Agintariak ez dute gure tristura bilatzen. Agintariak, bai lehen, bai orain, zirkoa eskaintzen saiatzen zaizkigu, gehiegi pentsa ez dezagun edo, bederen, gehiegi kexa ez gaitezen... Ez dago telebista ikustea besterik. Edo eta beraien adierazpenak entzun, barrabaskeriarik handiena egin eta esandako egunean ere, konbentzitu nahian, gauza ororen alderdi baikorra saldu beharrean... Beste kontu bat da biktimismoarena. Kristautasuna oinarri izan dugularik, gaur egungo artearen zola tristura ez ezik, sufrimendua da. Eta zinema hartuko dut adibide. Istorio gehienek, gordinenak izanik ere, sufrimendua dute abiapuntu,

noski, helmuga zoriontsu batera heltzeko. Bidea denik eta zailena izan liteke baina, azkenean, zoriona erdiesten dugu... Eta dugu diot, protagonistekin bizi dugulako guk ere, inorena den mundu irreal bezain zoriontsua. Eta bikotekidearekin haserretzen garenean, filmeko protagonistarekin oheratzen gara eta, kito! Arazoa erdiratuta.

Ez, ez nago ados asteburuak gero eta lanpetuagoak ditugun iruzkinarekin ere. Halaxe da, bai, halaxe izan dadin uzten dugulako. Eta bizitza azalekoak irensten ditugulako. Ordu beteko filmak bezain azal eta laburrak. Arazoa, astelehenean lankideari zer kontatu da. Nork ez du, bada, asteburu oro bidaiatzen, asteburu oro afaritik bazkarira eta bazkaritik afarira, edo halako edo bestelako klubeko kiroldegian giharrak luzatzen ibiltzen ez denik? *Bon vivant* hauek, ordea, beldurra diote galdera magikoari: “Zoriontsu al zara?”.

“Zer da, ba, zoriontsu izatea?” bota zigun batek, aurrera, kafean. “Nik nahi dudana egiten dut; jada ez daukat tontakerietarako adinik, baina hortik zoriontsu izatera... zoriona ez da existitzen! Beti dago aldamenean, norbaiten bat, izorratuko zaituena!”.

Beste inork ez zuen deus esan. Zoriona kanpotik bizitzea nahikoa ez izanik, zorion eza ere kanpotik datorkigula aditzera eman zuen. Eta zer pentsatua ematen du: “Gure zoriona besteen esku dagoela?”. Ez, zoriona begirada da, norbanakoaren begirada, norbera eta transferiezina, bizi dugun une bakoitzari atxikia. Gainontzeko guztia, literaturan bezala, gure esku ez dagoen guztia asmatuz amets egiteko estakuru merkea baizik ez da. Hori bai, kontsumitzaile errazak engainatzeko sekulako ilusio makina da. ■



Bikotekidearekin haserretzen garenean,  
filmeko protagonistarekin  
oheratzen gara eta, kito!

Arazoa erdiratuta

